

Liburuak

KRITIKA

Hau mundu arrano hau.
Juan Bautista Bilbao, "Batxi".
Susa, 1997. 189 orrialde. 10,83 euro.

Hemeroteka

Aritz Galarraga



Lotsagabe bat idazle

EZ DADILA irakurlea nahas: liburu honen edizioa 97koa bada ere, bertan irakur daitezkeen testuak arinago idatziak izan ziren, gaur mende bat atzera, 1914, 15, 16aren hasieran ere bai. Hortxe azkenekoz, orduantxe hil baitzen Juan Bautista Bilbao, *Batxi*, marinel hartzen zuen barkua mina batek lehertuta. "Nor da Batxi delako hori baina?", galdetuko du batek baino gehiagok. "Nor da inongo paperetan agertzen ez den idazle modu hori?", libururik gabeko idazlea, 1914ko urriaren 25ean euskal idazleen bilera historikoa atzeratzeko beste zena, Bilboko itsasadarrean barrena ezin eginda zebilen eta.

Bada, auskalo nor izango zen, baina zer utzi zuen idatzita kontuan hartzeko modukoa da, ezbairik gabe. Hiru ataletan sailka daitezke haren hitz lauuko idazlanak: bertako kronikak, ipuin saioak, atzerriko kronikak. Atzerriko kronikak ditu lan nagusi, Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek apailatu bildumak agerian uzten duen moduan. Kronikaren aitzindariatza ere hartzen dute hitzaurrean. Haize freskoa, zalantzarik gabe, garai hartako kontagintzan.

Hasteko eta behin lotsagabe hutsa du idazkera. Herritik kanpo herrian baino areago, Rotterdamen ez baitago batzokirik, ez karlistak pairatu beharrik Durbanen. Adibidez Italiako Savona hirian, gozatua da, nola azaltzen duen makarroiak metroka jan daitezkeela eta ordaindu gabe ihes egin nahi duen euskaldunaren afera; nola aitatzten dituen alkoholaren kontra egiten duten hizlari mozkorrak; nola Ibarrangeluko batek gauez sardinarekin ingelesak uxatzen dituen, aiztoa duela sinetsarazita.

Baina ez pentsa dena jai denik, orain ehun urte jada matrimonio civile bat badela erakutsiko baitigu, txinatarrek Cardiff-en bi kale dituztela, Chiness Laundry ugari, Batxik berak bat jarri asmo duela Plaza Barrian. Argentinako euskaldunen egoeraz ere mintzo da, jatekorik ez, eta abisua pasatzen du: "Euskaldunak ez egin hara joateko biderik". Baina ez pentsa hor geratzen denik, Lehen Mundu Gerrak Hegoaldean duen kronista bakarra bai baita, patuaren gauzak, alemanek jarritako mina batek hiltzen duen arte.

Egia da euskotarrez hitz egiten hasten denean (bi euskaldun sei ingelesan aurka garaile jartzen dituenen bezala), Euzkadiz, urrin susmagarria hartzen dutela testuek, ideologia atzerakoia erakusten dutela tarteka ("euskotar onagan ez dagoela opor egitea, ez ugazaben aurka joatea"), baina bestela demasa da bilduma, harribitxia, sorpresa zakua. Eta, besteren gainetik, bilduma lotsarik gabea. ■

Arbelbide, lehengo eta oraingo sorginei buruz

400 urte pasa dira De Lancreren sorgin-ehizatik eta horren karietara izan da gaiari buruzko hitzaldirik eta publikatu dira artikulua eta liburuak ere. "Baina, nor dira sorginak? Zer dira?" galdetzen du Xipri Arbelbidek Elkar argitaletxearekin publikatu duen *Sorginak. Leben eta orain. Afrikan eta bemen* liburuan. Lan hau idazteko Arbelbidek berdin baliatu ditu XVII. mende-

ko testuak eta berak pertsonalki Boli Kostan izan zen garaian ikusi eta bizita-

koak (12 urtez jardun zuen herrialde hartan misiolari).

Emaitza oso liburu dokumentatua da, sorginkeriarren gaia gaur egungo tesuingurura ekartzen laguntzen duena. ■



Sorginak...
Xipri Arbelbide.
Elkar.
192 orrialde.
16 euro.

Jokin Ansorenaren 'Ordu bietan Frontoian'

Ordu bietan da zita, Frontoian. Baina ez pilotak astindu, apustuak egin eta fortunak galtzen diren frontoi horretan. Ez. Tolosako... barka, Bedaiopeko Frontoian jatetxea da Jokin Ansorenaren nobelari titulua ematen diona. Gastronomiak leku nabarmena baitauka Alberdania argitaletxearen eskutik kaleratu den eleberri honetan. Jatetxeko platerak esku trebez manciatzen ditu Roberto sukaldariak; jaki gozo horien inguruan berriz, Teresa eta Andres, Daniela eta Mario, Raimundo eta Manuela, Magdalena eta Anizeto... Maitasun istorioen bidez harilkatutako nobela oso bat. Ia Venezuelako telesailen tankerako amodioak, baina ez han, hemen baizik, Tolos... barka, Bedaiopen. ■

Ordu bietan Frontoian.
Jokin Ansorena.
Alberdania.
398 orrialde.
21 euro.

